

‘LASA-ZABALA AUZIA’. Gobernadore zibil ohiari 71 urteko espetxe zigorra ezarri zioten

Entzutegiak Julen Elgorriaga aske utzi du, osasun arrazoiak direla medio

Atzo arratsaldean irten zen Alcala-Mecoko espetxetik ‘Lasa-Zabala auzian’ zigortutakoa

Erredakzioa | DONOSTIA

Julen Elgorriaga Gipuzkoako gobernadore zibil ohiak aske utzi zuen atzo arratsaldean Espainiako Entzutegi Nazionalak osasun arrazoiak haintzat hartuta. Joxean Lasa eta Joxi Zabalaen bahiketan eta hilketan parte hartzeagatik zigortuta dago Julen Elgorriaga. Entzutegi Nazionalak 71 urteko espetxe zigorra ezarri zion iazko apirilean. Egun Alcala-Mecoko espetxean betetzen ari zen zigorra, Auzitegi Gorenak helegiteei buruzko erabakia hartu bitartean.

Julen Elgorriagak behin-behineko askatasuna eskatu berria zuen gaixotasun koronario larria zuela argudiatuz. Gobernadore zibil ohiak aurkeztutako txosten forentsea aztertu ondoren, Fiskaltzak behin-behineko askatasunaren aldeko iritzia eman du eta, azkenik, epaimahaiak aske uztea erabaki du. Agindua atzo jakinarazi zion Alcala-Mecoko espetxeari eta atzo arratsaldean bertan (19:40 aldera) irten zen Elgorriaga kartzelatik. Txosten medikoaren arabera, Elgorriagak bihotz arazoak ditu eta espetxealdian bere bizi itxaropena murriztu da.

Lasa eta Zabala familien ize-nean akusazio gisa jardun zuen Iñigo Iruin abokatuak «harridu-



AURE NORMAETXEA / EFE
Julen Elgorriaga Gipuzkoako gobernadore zibil ohiak, atzo arratsaldean espetxetik irten ondoren.

raz» hartu du Entzutegiaren erabakia, epaimahaiak ez dielako aldeei ezer galdetu ez jakinarazi Elgorriagaren eskaerari buruz; eta halako kasuetan bestela gertatzen da.

71 urteko zigorra

Julen Elgorriagak eta Enrique Rodriguez Galindo jeneralak 71 urteko espetxe zigorra jaso

zuten Lasa eta Zabalaen bahiketan eta hilketan parte hartzeagatik. Biei bi hilketa delitu eta bi legez kanpoko atxiloketa delitu egotzi zien Entzutegi Nazionaleko epaimahaiak 2000ko apirilaren 28an kalera-tutako epaian. Hauekin batera Angel Vaquero, Enrique Dorado eta Felipe Bayo guardia zibilak ere zigortu zituzten eta

Jorge Argote eta Rafael Vera, ordea, absolbitu. Joan den ekainaren 6an Auzitegi Gorenak aztertu zituen epaiari ezarritako errekursoak eta erabakia berehalakoa izatea espero da. Behin-behineko askatasuna emateko agindua, beraz, zigorra behin betikotzat jo dezakeen Auzitegi Gorenaren erabakiaren aurretik etorri da.

OMENALDIA. Gatazkari irtenbide politiko eta demokratikoa eman behar zaiola aldarrikatu dute AABek

Boluetan hildako ETAko lau militanteen omenez ekitaldiak egingo dituzte abuztuaren 11n

Aitor Encinas | BILBO

Euskal gatazka konpontzeko irtenbide politiko eta demokratikoaren premia aldarrikatu, eta duela urtebete Boluetan hildako lau euskal militanteen omenez —Patxi Rementeria, Ekain Ruiz, Urko Gerrikagoitia eta Zigor Aranbarri— abuztuaren 11n ekitaldi nazionalak egingo dituztela jakinarazi zuten Amnistiaren Aldeko Batzordeak, atzo, Bilbon. Ekitaldiak Durangon, Markinan eta Hernanin izango dira, 19:00etan, eta *Euskal Herriak irtenbide demokratikoa behar du* lelopean egingo dira.

Boluetan (Bilbo) ETAko lau kide hil zireneko urteurrena betetzen dela-eta, AABetako bozeramaile Julen Larrinagak euskal auziari ematen zaion konponbidea «okerra» dela esan zuen; eta PPK zein Espainiako komunikabideek Boluetan hildako militanteen senitatekoei erakutsitako jarrera gaitzetsi zuen. «Euskal gatazka konponbidea behar du, baina, hori ez da lortuko errepresioaren bidez, baizik eta eskubide sozial eta politikoak errespetatuz. Gakoa elkarriketaren eta begirunean datza», esan zuen Larrinagak.

Hala, Espainiako Gobernuak

«sistema poliziala» erabiltzen duela, eta, egun, joera horri eusten dion orok «euskal gatazkaren luzapena» bultzatzen duela azpimarratu zuen AABetako ordezkariak. Horren harira, Boluetan hil ziren lau pertsonak «terroristatzat» hartu izana gaitzetsi zuen.

Hildakoak «militante politikoak eta independentistak» zirela esan zuen Larrinagak, eta «euskal gatazkari irtenbide politiko eta demokratikoa» eman behar zaiola: «Konponbidearen apologia egin gura dugu, besteek auziaren apologia egiten duten bitartean», esan zuen AABetako kideak.



JULEN LARRINAGA

AABetako bozeramaileak

«Konponbidearen aldeko apologia egin nahi dugu, besteek auziaren apologia egiten duten bitartean»

ETA

Armategi zahar bat atzeman du Jendarmeriak Uztaritzen

H.G. | BAIONA

Uztaritzeko Jendarmeriak ETArena izan daitekeen armategi zahar bat atzeman zuen igande goizean Uztaritzeko (Lapurdi) oihan batean. Polizi iturrien arabera, 15 urte inguru ditu zuloak, eta jada erabili ezin diren hainbat arma erdoildu atzeman zituzten. Uztaritzar batek onddotan ari zela atzeman zuen zuloa, lurrean sartuta zegoen bidoi bat hostoez estalirik zegoela ohartu ondoren. Jendarmeriara deitu, eta zuloa miazteari ekin zioten.

Orotara 9 milimetroko zazpi pistola, subfusil bat eta magnum kalibreko 44 munizio kaxa atzeman dituzte bertan. Gisa berean «etxean egindako granaden tamainako bi lehergailu» atzeman bide dituzte, leherketa neurtzeko erlojuak eta bolbora.

Iturri beren arabera, espainiar nortasun agiri faltuak topatu dituzte, bai eta gazteleraz idatzitako dokumentazioa ere, lehergailuak eta molotov koktelak nola egin adierazten dutenak. Guztiak zaharrak dira, eta zenbait ale ezin dira irakurri.

Polizia Judizialaren erranetan, aldiz, *Egin* egunkariaren ale bat eskutan zuen pertsona baten argazkia ere bazen zuloan. Poliziaren ustez, laurogeigarren hamarkadan ETAk bahitutako pertsona batena izan liteke. Inkesta Pariseko DNAT polizi zerbitzuak segituko du.

Lehergailuak garraiatzeko ibilgailuak Mourenxen

Larunbat arratsaldean ETAk lehergailuak garraiatzeko erabili bide dituen bi kamioneta atzeman zituen Frantziar Poliziak Okzitaniako Mourenx herrian. Peugeot eta Citroen markako ibilgailuak, Pasteur eta Aubisq plazetan atzeman zituzten, matrikula faltuak zizutela. Gainera, kamioneten barnean bertze matrikula faltu batzuk atzeman zituztela jakinarazi dute polizi iturriek. Afera honen inkesta ere, Pariseko polizi zerbitzuen ardurapean segituko dute.